

Unibertsitatea

EHUko ikasleek erreferenduma egingo dute Barberaren dimisioa eskatzeko

Leioa eta Informatikako ikasleek iganderarte jarraituko dute entzerronarekin

EHUko ikasleek erreferendum bat egingo dute datorren ostegunean Emilio Barbera errektorearen dimisioa eskatzeko. Bestalde, ikasleek Leioako Kanpuseko Liburutegian eta Donostiako Errektoreordetzan entzerraturik jarraitzea erabaki zuten atzo goizean egindako asanbladetan.

GORANE AGIRRE / BILBO

Leioako Fakultateko asanbladak Barbearen dimisioa eskatzu datorren ostegunean EAE mailako erreferendum bat egingo erabaki zuten atzo. EHUko ikasle, irakasle zein Administrazio eta Zerbitzu Pertsonalak (AZP) Barberaren dimisioa bai-ez galderari erantzun beharko dio ostegunean.

Ikasleek Emilio Barberaren dimisioa eskatzearren arrazoiak besteak beste «aspalditik unibertsitateak bizi dituen arazo anitzi irtenbide egokirik emateko errektoreak erakutsi duen gaitasun eza eta Ertzantza unibertsitate eremuan sartu izana» dira.

Errektorearen dimisioa eskatzen badute ere, kanpus bizkaitarreko ikasleek beharrezkotzat jotzen dute errektorego eta ikasleen arteko negoziaketa, azken hauen eskubide eta eskakizunak aztertzeke.

Leioako ikasleen asanbladak, bestalde, joan den asteazkenetik Liburutegian aurreran daramatzaten entzerronarekin iganderarte jarraitzea eta greba bertan behera uztea erabaki zuten atzo. Kanpus bizkaitarreko ikasleek Fakultateko Koordinadora bat osatuko dute beraien eskubideak Errektoreordetzarekin negoziatzeko, «horiela Barberak negoziaketak hasteko eskatutako maila estrukturala beteko dugu», azaldu zuten asanbladako ordezkariak.

**ERREKTORADUTZA
POLIZIALKI
OKUPATUA**

Bestalde, Donostiako kanpusari dagokionez, Zorroagako ikasleek datorren abenduaren hamazazpirarte greban jarraitzea erabaki zuten atzo goizean egindako asanbladan. Informatika fakultateko ikasleek, berriz, orain dela ia lau aste hasi zuten entzerronari datorren igandean bukaera ematea erabaki zuten.

Irakasle kaleratuek, bestalde,

«errektoreordetza polizialki hartuta egotea» salatu zuten atzo. «Atzo goizean Errektoreordetza joan ginen Kontseilu Soziala bilduko zen ala ez baieztatzeko, hara joan ginean errektoreordetza polizialki hartuta zegoela ikusi genuen, eta bertan zeuden hogeitamar bat guardia juraduk ez ziguten sartzen utzi. Guk Agustín Berreteaga Funtzio Publikoaren buruarekin hitz egin nahi genuen bilera baieztatzeko azkenean, sartzen utzi ziguten baina haren bulegoeraino askotaturik eraman ziguten», salatu zuten irakasle kaleratuen ordezkari batek.

Era berean, irakasle talde honek datorren abenduaren hamaikan ospatzekoak diren hauteskunde sindikalei dagokionez 'kanpaina guztiz antidemokratikoa' gertatzen ari dela salatu zuten. «EHUko hauteskunde sindikalak direla eta LAB eta Stee-Eilaseko zenbait ordezkari beraien sindikatuetako propaganda Errektoreordetza jartzea debekatu zieten atzo sarreran dauden guardia juraduek, nahiz eta, barruan beste sindikatuetako propaganda jarria egon. Hauteskunde hauetan ez dira, beraz, eskubide sindikalak betetzen», zehaztu zuten iturri berberak.

Datorren asterarte berririk ez NUPko Magisteritza Eskolan

A.BARANDIARAN / IRUNEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Magisteritza Eskolako euskarazko taldearen ordezkariak Pedro Burillo Lopez errektorearekin bildu ziren atzo, talde honen arazoa aztertzeke. Errektoreak ez zuen inolako berririk eman, eta hil honen 13an Nafarroako Legebiltzarraren aurrean egingo duen agerraldiarate ez duela erabakirik hartuko azaldu zien ordezkariari, ondoren NUPko Batzarre Iraunkorra berrir bilduko delarik.

Agerraldia Ramon Arozarena (EE) foru legebiltzarkideak eskatu zuten, euskarazko taldea desgaiteko hartutako erabakia aztertzeke. Gogoratu behar, NUPko Batzorde Iraunkorrak hartu zuela erabakia, talde bat osatzeko behar den ikasle kopurua, bere ustez, ez zelako betetzen. Horren ondorioz, euskarazko taldea eta erdarazkoarekin egingo zen.


**EUSKARAREN
LEGEA
BETETZEA**

Aukerako asignaturak emateko taldea osatu ahal izateko, Unibertsitatearen Batzorde Iraunkorraren akordio baten arabera, 15 ikasle behar dira. Euskarazko taldean 12 ikasle matrikulatu ziren, eta hortik taldearen deuseztapena.

Hala ere, euskarazko taldearen ordezkariak ez dituzte zifra hauek onartzen. Beraien ustez, 12ko kopurua, aukerako asignaturentzat da, eta ez lerro oso batentzat. Bestalde, kexu agertu dira, matrikula egiteko orduan aurkitutako oztopoez. «Ez genekien ezta euskarazko taldea osatuko zen edo ez. Orduan batzuek erdarazko lerroa hartu zuten». Halaber, iaz hartutako akordioa gogorarazi zuten, Gobernuordezkariak sinatutakoa, «zeinen arabera ikasketak hauek guztiz legalak eta ofizialak bait ziren. Nahiz eta Euskararen Legearen kontra egon, lege hau betetzea eskatzen dugu, bertan irakaslearen prestakuntzarako goi-mailako zentruetan euskarazko irakaskuntzarako behar diren neurriak hartuko direla garbi azaltzen bait da».

Oraingoan, behintzat, klaseak aurrera jarraituko dute, ez bait dute oraindik klaseak gelditzeke agindurik jaso. Hala ere, eta irakasle batek esan zigunez, jasotzerakoan errekursoa azaltzekotan daude, erabakia berrir ere aztertua izan dadin. Mobilizazioak ere antolatuta dituzte, eta hauetako aipagarriena, hilean 15an egingo duten manifestazioa da, Euskalerrria eta Xorroxin irratiekin batera.

Bestalde, zenbait talde erabakia- ren kontra agertu dira jadanik.

LAN KIDE AURREZKIAREN SERVIRE
KUTXAZAINAKGau
ta egun
Loteria banatzen

Abenduaren 4etik Abenduaren 14ra bitartean, Lan Kide Aurrezkiaren bezero izan ala ez, zator Lan Kide Aurrezkiaren edozein Kutxazainetara, eta esku-dirua ateratzerakoan, Gabonetako Loteriaren 50 Pta.ko dohako partizipazio bat eskuratuko duzu. Entzun bezala. Kutxazainaren abantailez baliatze-hutsagatik. Zorte on bat!, eta "Gordoa" gertu!

**Euskadiko
Kutxa****CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**

Aipatu egunetan diru-ateratze eragiketa bat baino gehiago eginez gero, lehenengo diru-ateratzea soilik, eta txartel bakoitzeko bat bakarrik hartuko da kontutan.